

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4133

1514/2022 EBAZPENA, irailaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Marbella García Urbaneja andrea Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen kargutik kentzen den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 14ko 978/2017 Ebazpenaren bidez, Marbella García Urbaneja andrea izendatu zuten Debabarreneko ESiko zuzendari-gerente.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Marbella García Urbaneja andrea Debabarreneko ESiko zuzendari-gerentearen kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta eskerrak ematea egindako lanegatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko irailaren 6ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Debabarreneko ESiko jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.